

Asisko gutuna

2011ko abuztua. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

34. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarea lau printzipioen inguruan dabil, eta gutun honek horietako bati heltzen dio hil bakoitzean. Berriro bigarrenarekin egiten dugu topo abuztuan: “barnerantz apaltasuna”. Eta oraingoan minoritatearen egungo esanahia sakonki aztertzeke asmotan. Gutun honen zabalkundea eta irakurketa da Asis Sarearen ardatzetako bat,

eta bestea toki askotan hil guztietako azken ostegunetan egiten den otoitzaldia. Abuztuaren 25ean 19.30ean toki horietakoren batetik hurbil bazara, bertara etortzera animatzen zaitugu. Horrela ez bada, gonbite egiten dizugu zauden tokian otoitz-, meditazio- nahiz isiltasun-une bat egitera gutun honetako testuen bidez.

Gogoetarako gaia

Minoritatearen esanahi batzuk

Minoritateaz mintzo garenean iruditzen zaigu, pertsonen baitako bizitarik pribatueneko jarrerei egiten diela erreferentzia, eta soilik geure sentimendu pertsonalekin duela zerikusia. Baina minoritateak, irizpide gisa, aspektu ezberdin askotan gida gaitzake.

Egin dezakegu, minoritate eta apaltasunaren printzipio hau bizitzako erabaki handiei aplikatzeko proba: nola antolatu etxeko ekonomia minoritatetik, bizitza xumeagoa egin ahal izateko; zeintzuk izan daitezke gure aukera politikoak txiki denaren irizpidetik. Eredu profesionalen, minoritatearen irizpideak auzitan jartzen du gure pretentsioen handinahia eta gure proiektuen dimentsioaz galde egitera behartzen gaitu. Gaietan ditugun erantzukizunen aurrean, jar gaitzake zerbitzuzko tokia hartzeko ahaleginean.

Adituek diotenez, egungo krisiak zerikusi handia

du gu apaltasuna bezalako baloreetatik aldeni izanetik eta mugatasuna bezalako egia handiak ahaztu izanetik. Eta krisiak horrekin badu zerikusia, bertatik irteteko moduak ere zerikusia izango du balore horiek berreskuratzearrekin. Aurrerapenaren iraunkortasuna, printzipio gisa, guztiz lotua dago printzipio horiekin.

Frantziskok bizitu zuen minoritatetik bizitza berrirakurtzeak xumetasunean irautea ahalbideratzen digu, eta txikia, xumea eta apala dena kontzienteki aukeratzea gure bizitzako harreman, status eta ekonomiarako.

Pretentsio eta arrandi gutxiagoko aukera hauek, itxuraz ukapenekin zerikusia dutenak, bizitza errazten duten aukerak dira, sakontasun handiagora irekitzen eta libreago egiten gaituztenak. Hain beharrezkoak ditugun bizitza- eta gizarte-eredu berriak sortzen dituzte. Horregatik da Frantzisko hain egungoa.

Frantziskotar testua

“Bestalde, anaiek ez bezate izan botererik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean. Izan ere, honela dio Jaunak Ebanjelioan: Herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar anaien artean. Hauen artean handien izan nahi duena izan bedi guztion zerbitzari eta morroi; eta beraien artean nagusiena egin bedi txikienaren pareko” (1Er 5,9-12).

“Anaiak, edozein lekutan daudela ere, besterenean zerbitzuan edo lanean ari direlarik, ez bitez izan etxezain, ez eskribau, ez zerbitzatzen duten etxeko buru; eta ez bezate besterentzat eskandalubide eta norbere arimarentzat kaltegarri izango den lanbiderik har. Baizik eta txikienak izan bitez eta etxean diren guztien menpeko” (1Er 7,1-2).

Frantziskotar espiritualtasuna

Minoritatea erabakigarria eta funtsezkoa da frantziskotar espiritualitatean: horrek koloreztatzen ditu beste balore guztiak, beroriek frantziskotar eginez. Frantziskotar espiritualitateari nortasuna ematen dion balore orijinala izendatu behar balitz, zalantzarik gabe minoritate hitza esan beharko litzateke. Izan ere, ez da aski senidetasuna azpimarratzea eta nabarmentzea, baizik eta berorrekin batera minoritateak joan behar du banandu ezinik. Senideak eta txikiak, hara hor frantziskotar binomioa.

Minoritatea bizitzeko estilo bat da, izateko eta kokatzeko modu bat bizitzaren eta kreatzioaren aurrean, norberaren eta besteen eta Jainkoaren aurrean. Bizitzeko estilo horrek antzeko egiten gaitu gure gizarteko txikienekin, behekoekin, maila baxukoekin.

Jesus jopu eta zerbitzariari begiratzetik sortzen den frantziskotar minoritatea zera da: behetik eta behekoen zerbitzatzeko jarreraren alde jartzea eta horretan mantentzea, inoiz inor juzgatu gabe, nabarmendu, eduki eta agindu nahitik libre.

Hori izan zen Frantziskoren apustu argi eta deliberatua pretentsio- eta botere-nahiko gizarte ingurune hartan. Eta hori da frantziskotar proposamena gaur, deabruzko setiotik ihes egin ahal izateko; ihes, dena irensten duen anbizioak, eduki eta nabarmentzeko adizioak, eta gaur eguneko gizon-emakumeak hain gatibu egiten dituen botereak inguruan jarritako hesitik.

130. Salmoa

Jauna, nire bihotza ez da handi-min,
ez nire begiak gorazale;
ez nabil gauza handien atzetik,
ez neurritz gainekoen atzetik.
Isil eta bare dut barne-gogoa;
hautxoa amaren altzoan bezala,
hautxoa bezala dut barnean gogoa.

Israel, izan Jaunarengan itxaropen
oraindanik eta betiko!

Gutuneko azken hitzak

Apaltasuna izan daiteke itxura gordetze faltsua, harrokeria mozorrotua nahiz pose interesatua. Orduan ezer gutxirako balio du. Baina apaltasunak kreatziora bultzatzen du bera sakontasunez bizi dugunean, eta eragiten dizkigun kontraesanak onartzean, zeren eta dena beste leku batetik ikustea ahalbidetzen baitigu”.

2011ko iraileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate iraileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 5,1-11	7 Lk 6,20-26	13 Lk 7,11-17	19 Lk 8,16-18	25 Mt 21,28-32
2 Lk 5,33-39	8 Mt 1,18-23	14 Jn 3,13-17	20 Lk 8,19-21	26 Lk 9,46-50
3 Lk 6,1-5	9 Lk 6,39-42	15 Lk 7,36-50	21 Mt 9,9-13	27 Lk 9,51-56
4 Mt 18,15-20	10 Lk 6,43-49	16 Lk 8,1-3	22 Lk 9,7-9	28 Lk 9,57-62
5 Lk 6,6-11	11 Mt 18,21-35	17 Lk 8,4-15	23 Lk 9,18-22	29 Jn 1,47-51
6 Lk 6,12-19	12 Lk 7,1-10	18 Mt 20,1-16	24 Lk 9,43b-45	30 Lk 10,13-16

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilerio hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko abuztua. 2. printzipioa: eguneroko bizitza,

barnerantz: apaltasuna

34. zenbakia

Apaltasuna da Asisko Gutunak duen printzipioa abuztuko hil honetarako, oporrek eta atsedeen merezia hartzeko hilerako. Apaltasuna ez da geure baitatik lor dezakegun zerbait, baizik eta bizitzan jarrera-aldaketa eskatzen duen bidea eginez lortu ahalko dugu bera, besteari begiratzeko modua aldatuz.

Minoritatearen esanahi batzuk

Hil honetako gogoetan proposatzen zaigu, norberaren bizitza pertsonal eta barnekoari begira ez gelditzea, baizik eta minoritatea eta apaltasunean bizitze hori egunez egun bizitzea. Zeure bizitzako zein aspektutan duzu beharrezko minoritatetik apustu berria egitea? Agian familian izango da, agian lanean ... Non sentitzen duzu besteen zerbitzuan jarri behar duzula?

Txikia denetik hautapena egiteak eraman zaitzake zeure bizitza sustraitik aldatzera; gerta daiteke gertukoaren dituzunen partetik ere ulertua ez izatea. Prest zaude xumeen denaren aldeko aukera egiteko?

Zer betekizun duzula uste duzu alor sozialean, hain beharrezkoak ditugun apaltasuna eta zerbitzua, kontsumismoak zoraturiko gizarte honetan, berreskuratzeko?

Minoritatetik eta xumetasunetik bizitzeak protagonismoa galarazten du bizitzako edozein aspektutan. Norberari begiratzea uztera darama horrek, haratago begiratzeko eta bestearengana irekitzeko, haren beharrak ikusiz eta haren zerbitzura jarritz.

Non egiten zaizu zail protagonista izateari uztea, zeure bizitzaren "zentro" izateari uztea? Familian, lanean, harremanen munduan ...?

... "anaiek ez bezate izan botererik eta aginterik ..."

Frantzisko doneak ondo ulertu zituen Ebanjelioko hitzak zerbitzuari buruz. Zenbat aldiz jartzen gara zerbitzatzen geure gehiago izatetik?

Zer sumarazten dizute Frantzisko donearen hitzak? Dugun guztia Jainkoagandik hartu dugu, ez geuretzat gelditzeko, emateko baizik.

Zeure bizitzako une honetan non eskatzen zaizu anaiari emana bizitzea? Pentsatu duzu inoiz, zein ezberdina izango litzatekeen mundua, besteen zerbitzuan jarritz biziko bagina?

Frantziskotar espiritualitatea

Zer oihartzun dute zuregan frantziskotar espiritualitateak minoritateaz esaten dituen hitz horiek? Uste duzu eman daitekeela horrelakorik gizartearen egungo momentuan?

Edo bestela, uste duzu hori posible ez ezik beharrezkoa ere badela?

Zein jarrera hartzen duzu besteen aurrean? Eta Jainkoaren aurrean?

Egizu otoitz Jainkoaren aurrean zerbitzu-jarreran jarritz. Eska iezaiozu, eman diezazula behartsuenei zerbitzatzeko beharrezko duzun apaltasun hori, zeure bizitza edukitzean eta agintzean ez zentratzeko eta doan hartu duzuna besteei doan emateko.

"Haurtxoa amaren altzoan bezala"

Egizu otoitz salmogilearen hitzak zeure eginez. Eta utz ezazu zeure burua Jaunaren eskuetan, zeure errealitatea onartuz. Utz iezaiozu Jaunari, Bere bakea irrikatzen duen zeure bihotzari begiratzen, haurrak amaren altzoan egiten duen bezala.